

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Beaumont kontseilariak udalei lantalde bat proposatu die udaltzainen legea prestatzeko

*Udaltzaingoa duten 21 udalerrietako ordezkariekin bildu da gaur goizean, Tafallan*

Martes, 15 de marzo de 2016

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M<sup>a</sup> Jose Beaumontek Udaltzaingoa duten Nafarroako 21 udalerriei lantalde bat sortzea proposatu die, polizia horiek arautuko dituen etorkizuneko foru legea prestatzeko garaian parte har dezaten.

Hala helarazi die Tafallako kultur etxean bildu den toki-erakunde horietako berrogeita hamar bat ordezkari. Bileran horretan honako hauek ere parte hartu dute: Barneko zuzendari nagusi Agustin Gastaminza; Foruzaingoaren buru Torcuato Muñoz; Departamentuko idazkari nagusi tekniko Olga Artozqui eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko lehendakari Pablo Azcona.

Udaltzaingoa duten Nafarroako udalerriak dira: Altsasu, Antsoain, Barañain, Baztan, Berriozar, Burlata, Castejon, Cintruenigo, Corella, Lizarra, Milagro, Noain, Iruña, Azkoién, San Adrian, Zangoza, Tafalla, Tuter, Eguesibar, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Gogora ekarri behar da, Udaltzaingoa arautzeko foru-lege baten proiektu baten lanketa indarrean dagoen Nafarroako Polizien Foru Legean jasota dagoela.

### Aztertutako beste zenbait gai

Bileran beste gai batzuk ere aztertu dira, esaterako: Udaltzaingoko plantillen egoera, beren beharrak eta polizia horien eta Foruzaingoaren arteko elkarrekiko harreman handiagoko eredu baten aldeko apustua egitea, bai eta "bigarren jarduera" izeneko arautzea ere; haren bidez, adin



Beaumont kontseilaria bilerara joandako alkate eta udaltzainburuekin.



Tafallako alkatea bileraren hasieran bertaraturako guztiei ongietorria ematen.

handieneko agenteak zerbitzu osagarriak egitera pasako ziren, Suhiltzaileen Zerbitzuarekin gertatzen den moduan.

Gainera, Nafarroako Gobernuko ordezkariak Estatuko Administrazio Orokorrak Polizien Foru Legeari jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoren berri eman dute, eta polizien lanpostuen balorazio-azterketa zer egoeratan dagoen ere helarazi dute agenteen ordainsarien araubidea nahiz lanaldiak garatzeko.